

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

340 - 2025eko AZAROA

IBAIA ETA IBARRA
ZAITZEN

CEDERNA GARALUR: EKINTZAILETZAREN MOTORRA MENDIALDEAN

Cederna Garalur Elkarte Nafarroako iparraldeko garapen agentzia da, eta Arano, Goizueta, Leitza, Areso, Betelu, Araitx, Larraun, Lekunberri, Basaburua eta Imotz herrietan egiten du lan. Bere jardueraren ardatz estrategikoetako bat ekintzailatza da, tokiko ekonomiari eta lan aukerei eusteko ezinbesteko zutabea.

Ekintzaileei zuzendutako zerbitzuaren bidez, aholkularitza teknikoa eta formazioa eskaintzen dizkie bai negozio-idea

bat garatzen ari direnei, bai autonomo hasi berriei zein esperientziadunei. Laguntzen artean nabarmentzen dira: bidegarritasun planak egitea, dirulaguntzei eta forma juridikoei buruzko informazioa, formakuntzak eta negozioaren erreleboa prestatzen laguntzea.

Gainera, Cederna Garalur Nafarroa Ekintzaile Sarea osatzen du beste erakunde batzuekin batera —hala nola CEIN, Nafar Lansarea edo Nafarroako Merkataritza

Ganbara—. Sare horren lan bateratuaren emaitza da *Navarra Emprende* webgunea, Nafarroako ekintzaileentzako informazio eta baliabide nagusia. Gaztelaniaz badago ere, baliabide oso interesgarriak biltzen ditu: dirulaguntzen eta laguntza-programen informazioa, ekintzaileentzako gida praktikoak, formazio-jarduerak, eta arrakasta-kasuen testigantzak, besteak beste.

Eskualdeko ikuspegitik, Mimukai.eus webgunea da erreferentziazko plataforma, non formakuntza, albiste eta baliabide berriak biltzen diren. Bertan aurki daitezke Cederna Garalurrek eta beste eragileek antolatutako jarduerak, tailerrak eta proiektuak. Gainera, Mimukai sare sozialetan ere jarraitu daiteke, bai Instagramen, bai Facebooken, non eguneroko informazioa eta tokiko ekintzailatzaren berriak partekatzen diren.

Cederna Garalurrek, beraz, bertako ekintzaileei laguntza hurbila eta profesiona eskaintzen die, eta *Navarra Emprende* eta Mimukai bezalako plataformen bidez, Nafarroako eta Mendialdeko ekintzaile-tza-ekosistemarekin lotura zuzena bermatzen du.

Ekintzailatza ez da soilik negozio bat abiatzea, aukera berriak sortzeko eta lurraldea bizirik mantentzeko tresna da. Beraz, ekintzailea bazara Cederna Garalurrekin kontaktuan jar zaitezke:

GARAPEN AGENTEA

Ainhua Oribe

Telf: 617609328

Email: mendialdea@cederna.es

Arreta guneak: Lekunberrin eta Leitza.

Hitzordua aldeaz aurretik hartzea eskatzen da.

MIMUKAI

Elena Irigoien

Telf: 674 02 48 23

Email: mimukai@cederna.es

Tokia: Landa industrialdea, Suizpi 3, Leitza



· MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN: Albiasu, Aldatz, Alii, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU: Mailope Kultur Elkartea. L.G.: NA 719/93 Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik. issuu.com/mailopealdizkaria

· ERREDAKZIOA: Ainhoa Beraza, Aitor Irastortza, Arantxa Mikeo, Ane Ubegun, Irati Moreno, Mikel Hernandorena eta Xanti Begiristain.

· ARGAZKIAK: Ainhoa Beraza, Anne Oreja, Eider Martirena, Eneritz Urkola, Goiztiarrak, Ibane Sarasa, Inaxio Azkoaga, Iñigo Lasarte, Iosune Garmendia, Itsaso Bakedano, Jon Urtasun, Juan Antonio Garaikoetxea, Kirolmank, Lekunberri K.E., Lekunberriko Udala, Mikel Betelu, Mimukai, Oihana Goikoetxea, Ondare Kultur Taldea, Patxi Cascante eta Plazaola Partzuergo Turistikoa.

· PUBLIZITATEA: Irati Moreno - 660 476 041 info@mailope.eus

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

02

CEDERNA GARALUR

04

KUXKUXEAN Zorion agurrak

07

MAITE DITUT MAITE
"Arrizubiko itzulia"

8

ERREPORTAJEA
"Lasaitasunak turismo jasangarria erakartzen du"
Oihana Goikoetxea (Betelu)



12

BATZARRE

14

ELKARRIZKETA
"47 herrietako parrokoa izatea esperientzia aberasgarria izan da"
Inaxio Azkoaga Lasheras (Donostia - Lekunberri) eta David Galartza Fernández (Iturmendi)



19

KULTURA

22

ELKARRIZKETA
"Sexualitatea ez da genitalekin egiten dugun hartara mugatzen, gai zabalagoa da"
Itsaso Bakedano (Baldorba- Eraso)



28

PLAZATIK PLAZARA
"Irratian lan egiteak jendearekiko ardura handia dakar"
Jon Urtasun Usoz (Arrotxapea)

31

AGENDA

Hegoa Jiménez Lizarraga
 Azaroaren 24an, 5 urte.
 Zorionak maitia! 5 urte jada!
 Musu handi asko zure
 familiaren partez.
 Maite zaitugu bihurritxo!



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
 Idatz iezaguzu Whatsapp bidez **660 476 041** telefonora
 hilaren 20a baino lehen.



Ramón Garmendia Insausti
 Betelu-Lazkao, 1925/08/31 - 2025/10/11

- Goian bego -

Ramón Garmendia Insausti, 100 urterekin, urriaren 11n hil zen. Bere heriotzak guztion bihotzak geldiarazi ditu une batez. Ramón Garmendiak laguntza abegikorra eskaini zuen bere bizitza guztian zehar eta eskainitako maitasuna askoren bizimoduaren parte izanen da beti. Familiak har ditzala gure doluminik zinezkoenak.

CORREOS-i eskaera

Lekunberriko Herriko Plazan kokaturik dagoen posta bulegoko arduradun berria erdalduna da. Gure udalerrietako herritarrek ezin dute euskara erabili posta bulegora hurbiltzen direnean, bertan dagoen langileak ezin dituelako euskaraz atenditu. Gure herritarren hizkuntza-eskubideak aintzat harturik, Larraungo eta Lekunberriko Udalek eskaera bideratu dute Correosera, langile euskalduna bidali dezaten. Herritarrek ere baliatu dezakete euskaraz artatuak izateko eskubidea; horretarako, eskaera orria eskura izanen dute bi udaletan, nahi duen orok sina dezan.

Eskaera sinatu nahi baduzu, hurbildu zaitetz Larraungo edo Lekunberriko Udalera azaroaren 30a baino lehen.

Sinadura emateko tartea pasata eskaera guztiak CORREOSera bideratuko dira.



Lagunasesoría S.L.

**Fiskala
 Laborala
 Kontabilitatea
 Seguruak...**

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

Bar Ainhua

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin
 eta bertan eskuz egindako madalenak,
 erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com



UR ARAZOAK IZAN DIRA ARAITZEN ETA LEKUNBERRIN

Urriaren 1ean, arazo baten ondorioz, Araizko Udalak ura moztu zuen Arribe eta Atallun.

Beranduago, urriaren 18an eta 19an, Lekunberriko Ertzillako Ur Partzuergoaren instalazioetan arazoak izan ziren, ur hornidurarako erabiltzen duten bonba apurtu egin zen eta. Ondorioz, hornidura moztu zuten.

Dagoeneko ez dago arazorik ura erabiltzeko Araitz eta Lekunberri aldean.



MAILLOPE ALDIZKARIAK AURTEN IX. NAFARROAKO EDIZIO AZOKAN PARTE HARTU DU

Edizioaren Azoka Nafarroako gaien erakusketa handi bat da, kultura, historia, etnografia, artea, ekonomia, gizartea, kirola eta gure hurbileko errealitatea jorratzen duena. Halaber, erakusleiho garrantzitsua da Nafarroako egileentzat, batez ere beren lanak ikusleria zabalarari ezagutzera emateko. Aurtengo azoka urriaren 1ean zabaldu zen, eta urriaren 5era arte Nafarpres (Nafarroako Prentsa Elkarte) postuan egon dira Maillope aleak eskuragai.



ITZULPEN AUTOMATIKOA MAILLOPE HEDABIDEAN


Testua entzuteko botoiaren ondoan, titularra eta sarrera itzultzeko botoia ere eskuragai dago. Era horretan kontatzen denaren mamiaz jabetzen lagundu ahal zaie euskaraz ez dakiten edo ikasten ari diren bizilagunei, aldi berean argi utzita jatorrizko edukia euskaraz landuta dagoela.

Oraingoz, hainbat hizkuntzak gehitu dituzte sistemara: gaztelania, frantsesa, ingelesa, galegoa, katalana... eta, teknikak ahalbidetzen duen neurrian, asmoa da pixkanaka-pixkanaka inguruan entzuten diren bestelako hizkuntzak ere gehitzen joatea.

► Ibane Sarasa Tolosa (Atallu)



*Lehenik sagarra, gaztaina gero
ta onttoen esperoan
baba aletzen, artoa biltzen
hasiak dira auzoan
axari, azkonar, lepatxuriak
zer jana bilduz zuloan
hotza ate joka etorri zaigu
kurri loen arrimoan
hauexen gisan, hegan nahi nuke
giro onaren bila joan.*



Doinua: Misiolari baten moduan. **Hurrengoa:** Bakartxo Astiz Elberdin (Lezaeta).



Elorri Celaya Zabaleta (Alii).

IRITZIA

Kaixo herritarrak!

Araxes Ikas Komunitatean ongi etorria eman diogu ikasturte berriari eta honekin batera, gure dinamikak martxan jartzen hasiak gara. Jarduera horietako bat talde elkarreragileak dira eta urritik maiatzera egiten ditugu. Ondorengo irudian talde elkarreragileen dinamika azaltzen da eta ikusten den bezala, boluntarioak dinamika honen zutabe zarete: amatxo, aitatxo, amona, attuna, izeba, osaba, dendaria, botikaria, taxista...

Beraz, etorri eta animatu parte hartzera.

Animatzen bazara, idatzi helbide elektroniko honetara: cpbetelu@educacion.navarra.e

Araxes Ikas Komunitatea



URZUBI S.A.
GASSÓ
Tel. 948 504 241
urzubi@hotmail.com
LEKUNBERRI



TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxe: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com



SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com

ekin
rotulación
948 85 32 79

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

Hurrengoa:

Hodei Buldain Sestelo (Lekunberri)



Iñigo Lasarte Garcia
(Lekunberri)

maite ditut maite gure bazterrak

Arrizubiko itzulia

Ibilbidea: zirkularra

Distantzia: 5,8 km

Desnibela: +155 m


Zailtasuna: erraza

Zergatik aukeratu dut?

Inguruko zirrikitu gehienetan ibilita banago ere, orain dela aste batzuk ezagututako ibilbidea delako, ezohikoa.

Bidea:

- 1 Etxarriko plaza edo frontoitik aterako gara GR-12 ibilbidea eginez eta zuzen jarraituko dugu pistan gora 2 km inguru. Menhir bat eta berreskuratutako Etxarriko galtzin-labea ikusiko dugu bidean.
- 2 2. km-an borda batzuk ikusterakoan eskuineko bidea hartuko dugu, bide horrek Aldazko harrobira eramango gaitu. Erreka gurutzatu behar dugu, baina kontuz! Neguan lokatz asko egon daiteke.
- 3 Harrobia gurutzatuta, langa pasatu ondoren, ibilbideko 3. km-an eskuinera joango gara aldapan gora, Arrizubi tontorrera. Marka laranja batzuk ikusiko ditugu ibilbidean.
- 4 Tontorrean kontuz ibili beharko dugu, tarte harritsu batetik igaroko gara Arrizubiko erpin geodesikoraino.
- 5 Jaitsieran ibilbidea jarraituz berriz GR-12 bidearekin elkartuko gara eta eskuinaldera joko dugu. Tomas zulo kobazuloa ikusi eta bertan sartzeko aukera egongo da.
- 6 Azkenik hasierako pistara itzuliko gara eta aurkako zentzuan Etxarrira iritsiko gara hasierako puntura.



●● Oihana Goikoetxea, Apeztiherri landetxearen arduraduna (Betelu)

“Lasaitasunak turismo jasangarria erakartzen du”



Oihana Goikoetxea, Apeztiherri landetxearen parean.
Argazkiak: Oihana Goikoetxea.

Pasa den turismo-denboraldian Araitz eta Betelu helmuga erakargarriak izan dira bisitari askorentzat. Aurten, eguraldiak jendetza handia erakarri du. Izan ere, lasaitasuna maite duten familiak bertaratu dira eskualdeko paisaia berde biziak ikustera, erreka garbietan igeri egitera eta herri txikiaren xarma ezagutzera.

8

Aurtengo bisitarien gune gustukoe-netako bat Beteluko presa izan da. Araxes ibaian dagoen igerileku naturalak familiak eta lagun-taldeak erakarri ditu, egun pasa lasaia egiteko aukera paregabea baitu. Baina presaz harago, inguruan txoko polit ugari daude, besteak beste: Plazaola Bide Berdea, Aralar, Mendukilo...

Eskualdea Donostia eta Iruñearen artean kokaturik, bisitatiek egun berrean hiri giroa edo kostaldeko planak natur inguruko egonaldi lasaiekin uztartzeko aukera bikaina dute. Gainera, aipagarriak dira inguruko tabernetan eta dendetan kontsumitu daitezkeen tokiko produktuak, baita herriko gastronomia ere.

Udako balantze baikorra egin du Apeztiherri landetxeak

Beteluko natura berde eta lasaian kokatzen da Apeztiherri landetxea, harriz eta egurrez eraikitako baserri tradizionala. Etxea maitasunez berritu zuten Martin eta Oihana Goikoetxeak, Eneritz, Malen eta Andoitz seme-alabekin batera. Berritze prozesuan etxearen nortasuna mantentzea erabaki zuten, izan ere, harrisi zaharrak eta egurrezko habeak mantendu zituzten. Haien helburu nagusia kanpotik etortzen diren bisitariak etxean sentitzea da. Halaber, Apeztiherri esperientzia eder bat da, tximiniaren berotasuna ezinbestekoa da neguko gauetan, baita lo-

rategiko barbakoak uda arratsalde beroetan... Bisitatiek aisialdirako aukerak eta erosotasuna dituzte eskura. Gainera, hamaika logela ditu, sukalde guztiz hornitua eta barneko zein kanpoko gune zabalak.

“Beteluko presa erakargarria da”

Oihana Goikoetxeak, Apeztiherri landetxearen arduradunak, uda honetan jende ugari egon dela adierazi du, “uztaila nahiko jendetsua izan da, batez ere asteburuetan eta bigarren hamabostaldian. Abuztuan

beti jende ugari ibiltzen da. Irailean, berriz, jende gutxiago, batez ere asteburuetan". Horregatik, gehienetan familiak etortzen dira, eta ez dira bi gauetarako soilik gelditzen, "udan, gure landetxea bost egunetik gorako egonaldi baterako alokatu behar da. Goi-denboraldian ez dugu asteburuko erreserbarik eskaintzen, eta horrek turismo lasaia eta familiarra erakartzen ditu".

"Lasaitasuna, paisaia menditsuak eta kolore berde biziak dira jendeari gehien gustatzen zaizkionak"

Eta orduan, zergatik hautatzen dute bisitariak Apeztiherri landetxea? Oihanaren hitzetan, "Beteluko presa erakargarria da, eta uda honetan jendetza etorri da bertara. Eskualdeko turismoan garrantzi handia du. Baina egia da gure inguruak bisitariak erraz erakartzen dituela; lasaitasuna, paisaia menditsuak eta kolore berde biziak dira jendeari gehien gustatzen zaizkionak".

Bisitari ugari hiri handietatik joaten dira: "Gehienetan leku lehorretatik etortzen dira: Madril, Valentzia... Eta hemen kontraste handia topatzen dute. Hango bero eta lehortasunetik

gure freskotasunera salto egitea esperientzia ederra da beraientzat. Eta egia esan, mendiko ibilbideak egitea jende gutxi animatzen da; gehien- goak atseden hartzera, herrian paseatzera eta naturaz goatzera etortzen dira". Gainera, nazioarteko jendea ere ez da falta: "uda honetan ia herrialde guztietako bisitariak izan ditugu: ingelesak, frantsesak... Eta gehienetan familiak. Ezkondu aurreko agur festak eta horrelako ospakizunak ez ditugu izaten; gure eskaintza ez da erakargarria horrelako plan bat egin nahi dutenentzat".

Turismo honek herriko ekonomian ere eragin positiboa duela azpimarratu du Goikoetxeak: "Nik, etortzen diren bisitariari beti gomendatzen diet hemengo produktuak erostea. Herriko haragia oso goxoa da, eta gure supermerkatua oso eroso. Horrez gain, bertako merkataria eza gutzera animatzen ditut. Turismo jasangarriak gure herria ezagutarazten du, eta dendari zein tabernarientzat onuragarria da".

Azkenik, Oihana Goikoetxeak bisitarien interes ezberdinez ere hitz egin du, "lasaitasunak turismo jasangarria erakartzen du; gaztandegia, Peru-Harri edo inguruko beste txoko batzuk ere sarri bisitatzen dituzte. Guk, landetxetik irten eta bertako eskaintza ezagutzeko animatzen ditugu. Ezinbestekoa baita turismoak



Apeztiherri landetxearen sukalde-egongela.



Apeztiherri landetxearen logela bat.



Apeztiherri landetxearen egongela.

herriarekin eta eskualdearekin lotura onuragarria mantentzea. Horrek benetako esperientzia sortzen baitu.

IORTIA CLINICA DENTAL · HORTZ KLINIKA

Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol. Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsasu: 948 467 603 · 667 661 769

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

Ile-apaindegia
Estetika
Presoterapia
Podologia
Laser-depilazioa eta
depilazio elektrikoa
Dietista-nutrizionista
Mikropigmentazioa ezpainenetan
Mikroblading bekainenetan

Natura, kultura eta jasangarritasuna ezinbestekoak izan dira

Baina udako turismoa ez da Betelura mugatu. Aurtengo udan, Plazaola Partzuergo Turistikoak 'Plazaola Ezagutu: Bizi Lurra, bizi komunitatea' programa jarri zuen martxan, Nafarroa Ezagutu sarearekin elkarlanean. Sei asteburutan zehar, adin guztietako pertsonen landa-bihotzaren altxor natural eta kulturalak ezagutzeko aukera izan zuten, tokiko historia, paisaia eta kulturarekin harreman zuzena sustatuz.

"Bisitari ugari hiri handietatik joaten dira"

Egitarau zabala izan zen: Goizuetan Iberoko dorrea eta burdinola bisitatzea; Mendukiloko kobazuloetan gaueko fauna behatzea; Plazaolako bide berdearen historia eta irisgarritasuna ezagutzeta; eta Larraun ibaian auzolanean hondakinak biltzea.



Plazaola Ezagutu: Bizi Lurra, bizi komunitatea' programa.
Argazkiak: Lekunberriko Udala eta Plazaola Partzuergo Turistikoa.

Horren harira, Araitzen, abuztuaren 16an, "Araitz: Natura eta Lurraldea" izeneko bisita gidatua egin zen. Ekitaldiaren helburu nagusia bisitariak ingurune natural eta kulturalarekin

lotzea izan zen, eta ibilbidea Intzan hasi zen, Kablearen Behatokira igota. Aizti Ingurumen Zerbitzuetako teknikariek bertako natura eta lurraldearen historia azaldu zuten, eta



Goizuetan kokatzen den Iberoko dorrea kanpotik ikusten.



Goizuetan kokatzen den Iberoko dorrea barrutik ikusten.

**aseguru
gintza
XXI**

**ASEGURU
AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna
babesteko modu bakarra
behar bezela aseguraturua
egotea da*

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa

**HOSTAL
BETELU**

Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta
pizza goxoak

Erreserbak:
948 51 30 26 · 663 97 67 09

ALIPROX
Lekunberri
janaridenda

hamabostaldi
eskaintza bereziak

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE

ADIII! TLF BERRIA:
680 102 689



Larraun ibaian auzolanean hondakinak biltzen.



"Araitz: Natura eta Lurraldea" izeneko bisita gidatua.

ondoren, bisitariak Perunea etxeko zaldiak ezagutzeko aukera izan zuten. Zaldien sentsibiltatea baliatuz, ongizatearekin eta terapia-helburuekin lotutako azalpenak eman zituzten *Aukeran*, Intzan. Parte-hartzaileek esperientzia oso aberasgarria izan zutela adierazi zuten, eta bisitari asko, irailaren 20an, Araizko Kablearen Eguna ospatzera itzuli ziren.

Jarduera horien guztien helburuak turismo jasangarriagoa, irisgarriagoa eta komunitatearekin konektatuagoa sustatzea izan dira.

Turismoaren eta herritarren arteko eragina

Araitz eta Betelu uda honetan naturaren, kulturaren eta tokiko bizimoduaren erakusleho bilakatu dira. Presak, ibaiak, mendiek eta landetxeek bisitarien oroitzapenetan arrasto sakona utzi dute, eta herriko paisaia eta xarma ezagutzeko aukera paregabea eskaini ere. Gainera, bisitariak tokiko produktuak dastatu, artisautza ezagutu, eta udalerriko historia eta tradizioekin harreman zuzena izan dute.

"Turismo jasangarriak gure herria ezagutarazten du"

Herritarrek turismoa jasangarria eta errespetuzkoa izan dadin ahalegin handia egin dute, eta horrek emaitza argia izan du: bisitariak inguru-

nea zaintzen duten bitartean, euren esperientzia zoragarria bizitzeko aukera dute. Apeztiberri eta beste landetxeek eskaintzen duten harrera beroak eta egonaldi atseginak, turismoa harreman pertsonal eta komunitario baten esparruan kokatzen dute. Azkenean, gure eskualdeko natura eta kulturarekin, bisitariak atsedena bertan aurkitzen dute.



Zaldiei buruzko azalpenak *Aukeran*.

LEKUNBERRI
TABERNA

948 507 628
lekunbertaberna@gmail.com
Aralar, 19. baxo
31870 Lekunberri
@Lekunberri Taberna

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZEN

634 551 743
infoaralar@gmail.com

Errotaldea 19,
Lekunberri

MARTILLO TXIKI
PERKUSIO ESKOLA

www.martillotxiki.com
679 938 016



IGOR MARTINEZ AISA NAFARROA OINEZEKO ABESTIAREN SORTZAILEA ARALAR IRRATIAN EGON DA

"Buruz, bihotzez, oinez" lelopean ospatu zuen igandean aurtengo Nafarroa Oineza Paz de Ziganda ikastolak Atarrabian. Igor Martinez izan da aurtengo abestiaren sortzailea, ikasle ohia da, musikaria, musika-idazlea eta kazetaria ere.

Martinezek 60 lagunek parte hartu zutela adierazi zuen eta beraz auzolanak indar handia izan zuela sortzeko prozesu guztian zehar.

Bideokliparen grabaketa Diego Azanzaren zuzendari-tzapean grabatu zen. Bera ere ikasle ohia da eta ikastola grabatzeaz gain inguruatzen duen Atarrabian ere grabatzea erabaki zuten.

Entzun elkarrizketa osorik hemen: <https://labur.eus/ey1lrlcr>



"ATALLU IRRATIAK" ARRUÑE ELKARTETIK EMITITU ZUZEN ZUZENEAN UMORE SAIO INPROBISATUA

Pasa den ostiral arratsaldean, urriak 17, Esti Curiel eta Lorena Arangoaren eskutik "Atallu Irratia" martxan jarri zuten Araitz eta Beteluko Berdintasun Mahaiak antolatuta.

Irratsaioak saio ezberdinak izan zituen ordubetea zehar. Emisioa sukaldaritza saio batek hasi zuen, patata tortillaren inguruko debate sutsu batekin. Rantxeren saioan Luismari butaneroaren bisita izan zuten 'Pakita la del Barrioren' abestiekin. Amy Winehouse ere etorri zen 'Momentu Paranormalak' saioan, hil ondoren denek euskara ikasten dutela jakitera eman zuen. 'Kristauen Txokoan' C3PO (edo euskaraz Zepo) androidearen bisita, haur hiperaktiboak, ministroak eta Anabel artzaina era han izan ziren.

MIKROIPUIN LEHIAKETA ETA TAILERRA ANTOLATU DITUZTE ARAITZ ETA LARRAUNEN

Larraungo Euskara Batzordeak eta Araizko Euskaraz Bizi taldeak mikroipuin lehiaketa eta Idoia Torregararekin tailerra antolatu dituzte Larraun eta Araitz ibarretan. Lehiaketan parte hartu ahal izango dute LH5etik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleek eta 18 urtetik gorako herritarrek, bizitokia Larraunen edo Araitzen badute edo Ibarberri, Araxes edota Amazabal ikastetxeetan ikasten badute. Lanak originalak, aurrez saritu gabeak eta euskaraz sortuak izan beharko dira, gaia librea izanik, eta 2025eko azaroaren 14a arte aurkez daitezke Euskara Zerbitzuan edo larbeleareuskaraz@iparmank.eus helbide elektronikoan. Irabazleek Lanbroa liburu-dendako bonuak jasoko dituzte (40 € ikasleentzat eta 100 € helduentzat), eta sari banaketa abenduan egingo da ekitaldi publiko batean. Horrez gain, urriaren 28an, 18:00etan, Gabari Gune Irekian egingo da mikro-ipuin tailerra 16 urtetik gorakoentzat, izen-ematea helbide berean eginez.

Informazio gehiago: <https://labur.eus/7kurslwg>





NAFARROAKO PAPERGINTZAREN SUSTRAIAK LARRAUN IBAIAREN ERTZEAN

Marino Ayala Campinún eta Victor Placencia Mencia ikertzaileek nafar papergintzaren jatorria aztertu dute Aranzadi Zientzia Elkarreak argitaratutako liburu eder batean: *La Navarra papelera del siglo XIX*.

Izan ere, XIX. mendean, Larraun ibaiaren ertzean, Epifania Irazusta enpresaburuak bi paper fabrika ireki zituen, San Miguel eta Pastaola.

Urriaren 17an Larraungo Gabari Gune Irekian aurkezpen ederra egin zuten.

Interesgarria oso idatzi duten liburu dotorea, Arruitz eta Latasako olak ere presente daudelarik.

Entzun eta ikusi elkarrizketa osorik hemen: <https://labur.eus/7kurslwg>



SAGARDOGINTZAREN TRADIZIOA INDARTZEN

Larraungo Txalapartariak eta Ondare Kultur Taldeak antolatutako ekintza tradizionala martxan da. Aurten Aldatz aukeratu zuten eta ekimen parte-hartzailea arrakastatsua izan zen. Ondorioz, heldu den urtean eta aurrerantzean Larraungo beste herrietan egitea aurreikusi dute.

Urriaren 18an, goizeko 10:00etatik 12:00etara, sagarrak biltzen aritu ziren Martitxonea sagardotegiko sagastietan.

Gainera, sagar bilketa baserritarrez jantzita egitera animatu ziren, guztia bideoan grabatu zuten eta.

Entzun elkarrizketa osorik hemen: <https://labur.eus/7kurslwg>

MAILOPE ETA ARALAR IRRATIAREN LOGO TXAPELKETA MARTXAN DA

Mailope eta Aralar Irratia osatzen duen proiektu komunikatibo berriak une honetan ez du identifikatzen duen logorik; integratzailea, argia eta modernoa denik. Horregatik, irudi bereizgarria bat behar dugu. Ondorioz, Mailope eta Aralar Irratia batzen dituen logo bakar baten deialdia zabaldu dugu. Parte hartzaileak Araitx, Betelu, Lekunberri edo Larraunen bizi diren 18 urtetik gorako herritarrak izan beharko dira. Bakoitzak hiru diseinu aurkeztu ahalko ditu, eta lanek proiektuaren izaera eta aipatutako herrien lotura islatu beharko dute, originaltasuna eta kalitate teknikoa kontuan hartuta. Logoak bektorizatuak izan beharko dira, gehienez lau kolore erabiliz, eta BMP, JPG, GIF edo TIF formatuan bidaliko dira, 2025eko abenduaren 31ra arte, info@mailope.eus helbidera. Epaimahaia Mailopeko zuzendaritza taldeak osatuko du, eta irabazleak Nafarroako produktu tipikoen saski berezia jasoko du. Garailea 2026ko urtariletik aurrera jakinaraziko da.

Informazio gehiago: <https://labur.eus/ey1lrlcr>



“47 herrietako parrokoa izatea esperientzia aberasgarria izan da”



Jesús Jaimerena, Inaxio Azkoaga eta Jesus Mari Sotil mendian.

Inaxio Azkoaga Lasheras, Donostian jaio zen, baina bere bizitza erdia Lekunberri, Larraun, Araitz eta Beteluko 47 herrietako parroko izaten jardun du. Gaur egun, Donostiako apezpikuaren eskaeraz Erromara joan da doktoretza egitera.

14

Zer ikasi zenuen parroko izateko?

Gaztetan Zuzenbideko karrera egin nuen EHUn (Euskal Herriko Unibertsitatean). Ondoren, 2011tik 2014ra Zuzenbide Kanonikoan lizentziatu nintzen Erroman, eta 2014tik 2025era 47 herrietako parroko izan nintzen; azken urteotan Sotil eta Santi apezkin batera.

Duela bi urte Donostiako apezpi-kuak doktoretza egitea proposatu zidan, Gipuzkoan beste lan batzuk egin ahal izateko. Urte pare bat pentsatzen egon ondoren, aurtengo uztailaren

bukaeran baiezkoa ematea erabaki nuen. Beraz, San Tiburtzio egunean, abuztuaren 11n, Leitzako meza nagusian eta YouTubeko kanalean, nire erabakiaren berri eman nuen.

“Nire maisuak Jesus Mari Sotil eta Jesus Jaimerena izan ziren”

“Lekunberri ikaragarri hazi da”

Ordutik hainbat agur egin dizkirate: Gorritin San Bartolome egunean, Lekunberriko azken mezan, irailaren 27an Intzako Santa Kruz ermitan...



Sotil Beteluko gazteekin.

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
• 948 19 70 70 •
www.tanatoriosirache.es

BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

MALLOAK
ARTZAI GAZTAK

Granja Martikonea, GAITZA, Nafarroa
Jabi, 649 472 057 + Joseune, 660 511 097
Malloak.com | info@malloak.com

IDIAZABAL

Ekitaldi guztiak oso politak izan ziren. Irailaren 28an, Areson eta Leitzaan ere agur beroa egin zidaten. Gero bazkari handi bat egin genuen Katagorri soziedadean, parrokia guztietako kolaboratzaileekin. 150 lagun inguru elkartu ginen bazkaltzera, eta irailaren 29an, biharamunean, Erromara joateko hegazkina hartu nuen.

Orain Erroman bizi naiz eta doktoretzako ikastaro batzuk egin eta gero, tesia garatu beharko dut. Doktoretzak hiru urte irauten du, baina Erroman otsailera arte egongo naiz, gero Donostiara itzuli eta joan-etorrian ibiliko naiz tesiaren aurkezpena Erroman egin arte.

“Bideoak YouTubean jartzen ikasi eta egunero-egunero Limako etxebizitzan zegoen kapera batean mezak grabatzen hasi nintzen”

Nola iritsi zinen Lekunberrira?

Iruñeko Seminarioan ikasi nuen eta hirugarren mailako ikasleoi asteburuetan parroketara bidaltzen gintuzten praktikak egitera. Astelehenetik ostiralera seminarioan egoten ginen, eta ostiraletik igandera parroketan.

Beraz, 2000. urtean, seminarioko laugarren ikasturtean nengoela, Lekunberrira bidali ninduten, eta asteburuetan bertan egoten nintzen.

Geroago, 2001-2002 ikasturtean Leitza joan nintzen; han diakono izen-

datu ninduten, eta 2002-2003 ikasturtean han bizi nintzela Lekunberrira ere joaten nintzen. 2003an apeztu ostean Betelu eta Araizko bost herri txikietan egon nintzen. Hala ere, Lekunberrirakin nuen harremana ez nuen eten, han ematen bainuen katekesi.

2000. urtetik aurrera Araitza joan nintzen, eta 2007an Gorriti eta Uitziko parroko izendatu ninduen apezpikuak, eta 2008an Lekunberrikoa. Han aritu nintzen 2011 arte. Gero, hiru urte eman nituen Erroman, eta 2014an, itzuli nintzenean, hasieran 25 herri eman zizkiguten hiru apezoi; baina pixkanaka, herri kopurua 47ra igo da, apez batzuk gaixotu edo hil egin baitira.

Oroitzen al zara Lekunberrira iritsi zineneko une hartaz?

Bai, niretzat oso une berezia izan zen. Nire maisuak Jesus Mari Sotil eta Jesus Jaimerena izan ziren, eta bi horiengandik asko ikasi nuen: Jesus gizon lasaia zen, eta Sotil oso gizon irekia.

Nire lehen asteburua Lekunberriko festekin batera suertatu zen, 2000. urteko Pilarika festetan. Oso esperientzia dibertigarria izan zen: jubilatuen bazkaria, Sotilen kuadrillako afaria, Pilarikako meza, ermitako bederatziruena... Dena oso polita izan zen.

Lehen asteburu hartatik poz-pozik itzuli nintzen etxera, eta esperientzia oso aberasgarria izan zen.

Garai hartan 25 urte besterik ez nituen; gazteei katekesia ematen nien, eta lagun berriak egiteko aukera izan

nuen. Urte asko pasa dira ordutik, eta bizitako esperientzia oso polita izan da.

Eta esperientzia bereziak...

Esperientzia gehiegi ditut... Oroitzapen asko. Nire bizitzaren erdia partekatu dut zona honetako jendearekin, eta hori sekula ahaztuko ez dudana gauza bat da. Nire burua bertakoa sentitzen dut, eta nahiz eta orain beste leku batera joan, harreman hori ez da inoiz bukatuko. Beti iraungo du nire bizitza osoan: bertako adiskidetasunak, esperientziak, han ikasitakoa... dena.

Euskara ere aldatu zait pixka bat; orain pertsona bera naiz, baina herrixka zoragarri hauek eta bertako jendeak eragin handia izan dute nigan.

Zein da zure ermita edo eliza gustukoena?

Ermita guztiak gustuko ditut, baina bat aipatzekotan oso gustuko dut Gorritiko Santa Barbara. Hortik ikusten diren bistak zoragarriak dira. Eta, noski, gure zonako erreferentzia handiena Aralarko San Migel da, horrek badu zerbait berezia, nolabait gure eskualdea batzen duen toki berezia baita.



Sotil, Inaxio eta Santi.

KOTXERA
Taberna • Jatetxea • Brasa
948 50 43 52
kotxera13.com
Caserío Benta Zaharra,
Mugiro (Navarra)

Antsonea
BASERRIKO GAZTA
948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitza)

NEKAZARI, S.L.
Kubota
STIHL
ANTONIO CARRARO
Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazaris1@hotmail.com

Iñigo Garaioa MARGOLARIA
696 658 288
LEKUNBERRI

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

TAXILON
661 202 249
(9 plaza)
E-posta: lotamendi5@gmail.com
Atallu - Araitza
Lontxo Otamendi Artola

Zu iritsi zinenetik asko aldatu al da Lekunberri?

Lekunberri ikaragarri hazi da. Iritsi nintzenean 800 biztanle besterik ez ziren, eta gaur egun kopuru hori ia bikoiztu egin da.

Batetik, Lekunberri herria asko modernizatu da. Bestetik, erlijioaren arloa ez da gehiegi aldatu, garai hartan den-denek parte hartzen zuten katekesian; orain, aldaketa txiki batzuk suertatu dira.

"Ermita guztiak gustuko ditut, baina bat aipatzekotan oso gustuko dut Gorritiko Santa Barbara"

Nolakoak izan dira inguruko herritarrekin sortutako harremanak?

Ni oso gustura egon naiz, eta jendea-rengandik asko ikasi dut: gazteen modak, herriko ohiturak, lehengo apezten istorioak... Niretzat oso interesgarria izan da. Hasieratik harrera bikaina egin zidaten, eta oso estimatua sentitu naiz.

Nola bururatu zitzaizkizun web orrialdea eta YouTube kanala sortzeko ideiak?

Pandemiaren garaian denok etxean geratu ginenean, ni Liman nengoen; urte hauetan Limako elizbarrutiarekin ere kolaboratzen aritu naiz.

Beraz, han nengoela, nire arrebak sarean meza asko partekatzen ari zirela aipatu zidan. Baina ez omen

zegoen euskarazko mezarik, eta nik bideo horiek grabatzeko eta YouTubean jartzeko ideia proposatu zidan. Ondorioz, bideoak YouTubean kargatzen ikasi eta egunero-egunero Limako etxebizitzan zegoen kapera batean meza grabatzen hasi nintzen. Dakidanez, etxean zeuden herritarrek asko estimatu zuten euskarazko meza eskuragai izatea. Konfinamendua eta pandemia amaitu arren, konturatu nintzen herritarrek asko eskertzen zutela eguneroko meza euskaraz ikusteko aukera izatea, eta horregatik, gaur egun, YouTubean eguneroko meza ipintzen jarraitzen dugu.. Bideoak asko zabaltzen dira eta horrek aukera ederra eskaintzen du.

Web orrialdea beste kontu bat da. Ni 2000. urtean Lekunberrira iritsi nintzen bezala, aurreko urtean seminarista bat joan zen Lekunberrira, asteburuetan ikastera. Mikel Arrieta deitzen da, eta telekomunikazio-ingeniaritza doktorea da. Behin, galdera tekniko batzuk egin nizkion eta laguntza eskatu nion, baina bera gai horretan aditua izanik, galdera konpontzeaz gain, web orrialde eder bat sortu zuen guretzat: 47herri.eus.

Eta euskararen presentzia...

Euskararen presentzia oso garrantzitsua izan da. Lekunberri eta Imozko zenbait herri hain euskaldunak izan ez arren, nire lan gehiena euskaraz egin dut, eta oso polita izan da. Askok gozatu dut horrekin. Nik betidanik ikasi dut euskaraz, baina Donostia oso hiri elebiduna da. Aldiz, Araitzen edo Larraunen

euskaraz bizi daiteke.

Eta nolako izango da zure etorkizuna?

Orain Donostiako apezpikuaren menpe gelditzen naiz. Baliteke hango tribunalean aritzea, baina oraindik ez dakit zein parrokiatan egongo naizen edo zein ardura bete beharko ditudan.

Une honetan nire helburua ikasketekin hastea da. Apezok baditugu gure gogoko arloak, baina apezpikuen eta elizbarrutien premien menpe gaude.

Nik utzitako postuari dagokionez, Sotil eta Santirekin batera, David Galartza Fernández izango da 47 herrietako parroko berria, Lesakan eta Beran esperientzia duen apeza.

Amaitzeko, alde batetik, herritarrei nire esker ona adierazi nahi diet, eskaintako harrera eta tratua oso onak izan dira. Eta bestetik, ibarreko gazteak gure herrien tradizioa eta nortasuna mantentzera animatu nahi ditut. Mundu modernoan horrelako ospakizunak galtzen ari dira, eta batzuetan beste garai bateko ekintzak direla dirudi, baina tradizio horiek nortasuna ematen diete hemengo herriei: erromeriak, ospakizunak... horiei eutsi behar zaie.






CONSTRUCCIONES

ERAIKUNTZAK

CONSTRUCCIONES

URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK

FATXADAK

ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683

Lekunberri



Construcciones

Gañarbe

ERREABILITAZIOAK

IGELTSERITZA

FATXADAK

TEILATUAK

 Oztegin kalea 2, Lekunberri

 construccionesganarbe@gmail.com

 616 457 540

 636 827 846

●● David Galartza Fernández (Iturmendi)

“Santi, Sotil eta hirurok batera landuko ditugu 47 herrietako parrokiak”



David Galartza Fernández, 47 herrietako parroko berria.

David Galartza Fernández iturmendiarrak filosofoa eta teologian doktoa da. Lizarran 9 urtez eta Lesakan eta Beran 14 urtez parrokoa izan ondoren; gaur egun Araitz, Betelu, Lekunberri eta Larraungo 47 herrietako parrokoa da. Gainera, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta Seminarioaren irakaslea ere bada.

17

Zein da orain egin beharko duzun lana?

Nire lehenengo eguna Lekunberrin izan zen urriaren 9ko mezan, goizeko 8:00etan. Orain, Santi, Sotil eta hirurok batera landuko ditugu 47 herrietako parrokiak. Ni moderatzailea naiz, baina hirurok berdintsuak gara eta elkarren laguntza ezinbestekoa da.

Gainera, gure web orrialdean meza berezien bideoak eskaintzen jarraituko dugu, baita hiletak eta bestelako ekitaldien albisteak jartzen ere. Gainera, webgunea hizkuntza askotan dago eskuragarri: euskaraz eta gaztelaniaz, baita etorkin askoren hizkuntzetan ere, hala nola errumanieraz eta arabieraz; eta kudeatzeko aukera oso erraza da.

“Inaxioren proiektuei jarraipena ematea da eginkizun nagusienetako bat”

Eta orain, ze eginkizun ikusten dituzu?

Alde batetik, Inaxioren proiektuei jarraipena ematea da eginkizun nagusienetako bat. Lan handia egin zuen hemen, proiektu asko garatu zituen.

Bestetik, elizaren eginkizun nagusiari dagokionez, arlo garrantzitsuenetako bat alderdi espiritual indartzea da. Gizarte honetan materialismoa, berekoikeria eta bakartasuna nagusi dira. Beraz, barne dimentsio hori finkatzea ezinbestekoa dela uste dut, denok dugun espirituari buruz hausnarketa sustatzea.

Eta erronka nagusiak...

Une honetan Nafarroako Unibertsitate Publikoaren pastoralaren arduraduna ere banaiz; beraz, ia egun guztietan bertan egoten naiz gazte talde batzuekin lanean. Halaber, Berara ere joango naiz; han badago elizbarrutiko eskola bat, eta bertan ere erlijio irakaslea naiz. Beraz, une

honetan, hiru erronka nagusi ditut: 47 herrietako lan koordinatzea, gazteen pastoralaren ardura hartzea eta Berako eskolan klase ematea.

“Une honetan Nafarroako Unibertsitate Publikoko pastoralaren arduraduna ere banaiz”

Abiarazi nahi al duzu proiektu bereziren bat?

Inaxiok proiektu asko zituen: web orrialdea, elkarrekin lan egiteko modua, pastoral-kontseilua, Leitza, Basaburu eta Larraunen elkarlana... Oraindik ez ditut gauza guztiak ongi ezagutzen; beraz, lehenik ezagutu egin behar ditut, Inaxioren martxa jarraitu, eta gero pentsatuko dut zein proiektu jarri dezakedan martxan.

Orain gogotsu eta kokatze prozesuan nago, eskualdea ezagutzeko ilusioarekin.

Giro eta umore ederrean joan dira Lekunberriko festak

Giro ederrean joan dira aurten ere Lekunberriko festak. Asteazken arratsaldean herri kirol saioa eskaini zuten gazteek, umoretik, baina kirol lehia ahaztu gabe. Ondoren Lekunberriko Txalapartariak izan ziren eta jarraian piztu zuen txupinazoa Manoli Olaetxea, aspaldiko urteetan Lekunberriko bizilagun alai eta eskuzabalak. Bere umore ona eskertzeko, festetako lehen suziria pizteko ardura eman zion Lekunberriko Udalak.

Jendez lepo izan ziren ekitaldiak, baita egunez nahiz gauzez emandako kontzertuak ere, besteak beste: Eztitan, Puro Relajo, DJ Bambola, Dj Oixani, Joselu Anaiak...

600 lagun inguru elkartu ziren herri bazkarian eta 59 bikotek parte hartu zuten mus txapelketan.



Manoli Olaetxea txupinazoa pizten.
Argazkiak: Juan Antonio Garaikoetxea.



Lekunberriko festetako txupinazoaren une bat.



Albaitaritza
baserritarren
zerbitzura

Akaborro Ind., 31860 Iruztun
www.albaitaritza.com · 948 500 343



Baraibarko festak 2025



Uitziko festak 2025



"Palestina askatu"

Global Sumud Flotillaren aurkako eraso eta Gazaren setioa salatzen konzentrazioa egin zuten urriaren 3an Lekunberriko Udaletxearen aurrean.

Milaka pertsona mobilizatu ziren Euskal Herria osoan, palestinar herriak pairatzen duen genozidioa salatzen eta Global Sumud Flotillako ekin-tzaileei elkartzatzen helarazteko. Orain, Israelek ez ditu guztiz gelditu Gaza-ko eta Zisjordaniako erasoak, baina AEBek sustatutako su-etenak geldialdi bat sortu du bi urteko genozidioan. Halaber, Gazako biztanleak su-etenaren lehen egunak ustiatzen ari dira beren etxetara edo, gutxienez, beren etxeak egondako gunera itzultzeko.

Urriaren 10ean Arribeko Surtidoreko aparkalekuan Araitx eta Beteluko hainbat herritar elkartu ziren, Tximutxe berdintasun elkarteak eta Euskal herriko mugimendu feministak deituta. Beranduago, urriaren 15ean, sindikatuak eta beste hainbat eragilek deitutako lanuzte eguna izan zen. "Palestina askatu" lelopean, grebak egin zituzten goizean hainbat langilek Lekunberri, Larraun, Araitx eta Betelun. Ondorioz, Lekunberriko Herriko Plazan eta Larraungo Udaletxean elkartu ziren asko, Palestinaren aldeko elkarretaratzerantz joateko eta manifestazioan ateratzeko.



Arribeko Surtidorean elkarretaratzea. Arguzkia: Eneitz Urkoldo.



Larraungo Udaletxetik, Lekunberriko Plazara manifestazioa.

Nafarroako Sagardoaren Eguna eta Jardunaldi Mikologikoa ospatu zituzten Lekunberrin

Urriaren 5ean, Nafarroako Sagardoaren Eguna eta Jardunaldi Mikologikoa ospatu zituzten Lekunberriko Herriko Plazan.

Nafarroako Sagardo Ekoizleen Elkarte bost sagardotegik parte hartu zuten: Martitxonea (Aldatz), Larralde (Lekaroz), Lindurren borda (Lesaka), Lekunberriko Toki Alai (Lekunberri) eta Madotzeko Perkatzena (Madotz).

11:00etatik aurrera sagardo dastaketaz, onddo mota ezberdinen erakusketaz, artisautza postuez eta kirikoketaz gozatzeko aukera izan zuten herritarrek.

Jatekoa ere ez zen falta izan, taloak eta kroketak eskaini zituzten eta.



Kirikoketa Lekunberriko Herriko Plazan.



Onddo erakusketa.

Araitzen, konpartitzean eta elkar laguntzen dago geure indarra

Aurten, Patricia -Lisaren ama- Gaintzan egon denean liburu zoragarria oparitu digu. Robin Wall Kimmerer iparramerikako emakume indioaren The Serviceberry edo La Abundancia del Guillomo. Botanikan irakasle den emakume baserritar hau udazkenean zuhaizka honen fruituak biltzen ditu mendian gero pastelak eta marmeladak egiteko, baita auzokide eta lagunekin partekatzen. Bueltan besteek ere baratzean dutenaren parte bat ematen diote. Horrela sortzen da ekonomia zirkularra edo hartu-emanaren ekonomia.

Udazkenean gaude eta Araitzen gaztainak eta intxaurrak biltzeko garaia da. Baratzean oraindik asko dago eguraldi epelari esker. Udan zehar lurrik guk jan genezakeena baino gehiago eman digu eta guk lagun eta familiarekin konpartitu ditugu. Aurten ia kalabazarik eta tomaterik ez dugu izan Perunean baina Jose Marik eta Jose Manuel auzokideek oparitu dizkigute, horrela ez zaigu faltako negurako. Guk, aldiz, mahatsa eta Lisak egindako gailetak ematen dizkiegu. Horrela izan da herrietan betidanik, elkarri laguntzen, elkarren artean zegoena partitzen.

Gaur egun indibidualismoa eta honekin batera datorren gutizia gure gizartearen gaitz handiak dira. Herri, auzo edo bailara batean konpartitzen badugu eta elkar laguntzen badugu komunitatea eraikitzen dugu eta garai estuak etorriko direnean gure indarra izanen da.



“Sexualitatea ez da genitalekin egiten dugun hartara mugatzen, gai zabalagoa da”



Itsaso Bakedano sexologoa.
Argazkiak: Itsaso Bakedano.

22

Itsaso Bakedano sexologoa da. Eskualdean familia, bikote, ikasle, gazte zein helduentzako sexu-hezkuntzako saioak, hitzaldiak eta tailerrak eskaini izan ditu, besteak beste Betelun, Atallun eta Lekunberrin. Duela hiru urte hasi zen sexologia lantzen; aurten laugarren ikasturtea da. Sexu-hezkuntza egiteaz gain, kontsulta bat dauka Iruñerrian. Bere ardatz nagusia sexu-hezkuntza da, baina Itsaso Bakedano proiektuaren barruan aholkularitza sexologia-kontsulta ere badago: bertan kezka eta galderak dituzten herritarrak laguntzen ditu. Kontsulta Sanduzelain dago, Kresala izeneko klinikan, eta Donostiara ere joaten da.

Zer ikasi zenuen sexologoa izateko?

Lehenengo Arte Dramatikoak ikasi nituen; ondoren, hezkuntza, eta azkenik sexologia masterra egin nuen. Orain psikologia ikasten ari naiz, bi arloek lotura handia baitute.

Zergatik aukeratu zenuen sexologia zure lanbide gisa?

Ikusi nuen aukera zegoela honetaz bizitzeko, eta gizarteak jakin-min handia duela gai honen inguruan. Garai batean Uharteko Udalean (Iruñerrian) gazteekin lan egiten nuen, eta han ikusi genuen norbait formatu behar

zela sexologian. Uharteko Udalarri esker naiz sexologoa: haiek ordaindu zidaten formazioa eta Madrilén ikasteko aukera eman zidaten.

Aspalditik nuen gogoia, eta ikusi nuen erizaina edo psikologoa izan gabe ere aukerak nituela, horretan murgiltzea erabaki nuen. Hezkuntza-munduan beti lan egin izan dut, eta sexologiak bai pertsonalki bai profesionalki ate asko ireki dizkit. Gaur egun sexologia da nire ogibidea. Urte batzuetan lanaldi erdian ibili nintzen, baina gaur egun %100 horretan ari naiz. Proiektu propio bat sortzea ez da erraza, baina denborare-

kin ikusi dut horretaz bizi naitekeela, zoriontsu gainera.

Eman al duzu ikastaro edo hitzaldirik Araitx, Betelu, Lekunberri edo Larraunen?

Bai. Eskualdeko Euskara Zerbitzuarekin koordinatzen saiatu naiz; pasa den ikasturtean, Euskararen Astean zehazki, “Erotikan, desirak eta sexualitatea” izeneko tailerra eman nuen. Lekunberriko Udalarekin, eskolan sexu-hezkuntzako saioak eman ditut, bai ikasleentzat bai familientzat. Arlo formalean ez ezik, ongizate emozionalaren inguruko proiektu batean ere parte hartu dut Lorea Zulet psikologoarekin eta Ana Gurra nutrizionistarekin batera; Lekunberriko Udalaren ekimena izanik, hainbat saio eman ditut emakumearen sexualitatearen eta menopausiaren inguruan. Irurtzango Gizarte Zerbitzuekin ere lanean aritu naiz pornografiak sortzen dituen ondorioei buruz hausnartzeko, horren baitan, “Generación porno” dokumentala proiektatu genuen Lekunberriko Txikiparkean; eta Beteluko Araxes Ikastetxean eta Araizko Udalean, Gizarte Zerbitzuekin elkarlanean, hitzaldiak eta DBH 1. eta 2. mailako ikasleentzako sexu-hezkuntzako saioak emateko aukera izan dut.

“Gizakiok behar unibertsal bat dugu: norbaitentzat garrantzitsuak izatea”

“Sexualki analfabetoak gara”

Eta nolakoak izan dira saio horiek?

Oso desberdina da eskoletako ikasleekin edo helduekin lan egitea. Eskoletan denek sexu-hezkuntza jasotzen dute, eta hori abantaila handia da. Saio bat edo bi badira ere, saio horietan parte hartzea ezinbestekoa da.



Bakedano utero txurako pieza batekin.

Helduekin, berriz, desberdina da. Formakuntza jasotzea ez da derrigorrezkoa, eta interesatuak joaten dira. Parte hartzaileak gizonak zein emakumeak izaten dira. Egia da menopausiari buruzko tailerretan gizonezkoak gutxi agertzen direla, baina gai irekiak direnean —pornografiaren dokumentalaren harira, adibidez— guraso asko joaten dira, bai aitak eta bai amak.

Oraindik ere gai hau tabu da gure gizartean. Hala ere, aipagarria da orain arte eman ditudan tailerrak benetan arrakastatsuak izan direla. Talde txikiak sortu dira, 7 eta 15 lagun artean, eta Araitx eta Beteluko Euskararen Astean 20 lagun inguru bildu ginen; oso esperientzia polita izan zen.

Zure iritziz, zein dira sexu-hezkuntzak dituen erroka nagusiak?

Herri txikietako eta handietako egoera antzekoa da. Guraso gehienek haien egunerokoan ez dute sexualitateaz hitz egiten. Horregatik, askotan pentsatzen dugu gure haurrei gertatzen zaiena bakarra dela, baina gero konturatzaren gara ohikoa dela. Oraindik ere mamu beltz bat da gai hau: ari gara tabuak hausten, baina ez da eguneroko elkarrizketa.

“Ez dut esan nahi sexuaz etengabe hitz egin behar denik, baina ezkutatzek lotsa eta ezjakintasuna sortzen ditu”

Kirol ekintzetan, adibidez, jendeak proteinei edo erronkei buruz hitz egiten du, baina ez intimitateaz. Ez dut esan nahi sexuaz etengabe hitz egin behar denik, baina ezkutatzek ezjakintasuna eta lotsa sortzen ditu. Askotan, espazio egoki bat eskaintzea besterik ez da behar, eta orduan elkarrizketa irekia sortzen da. Adibidez, menopausiari buruzko tailerretan ikus daiteke hori: gorputzaz hitz egitea normalizatuz gero, askeago bizi gara.

Adin-taldean arabera ikuspegia aldatzen da?

Bai, eta askotan sexologia gazteekin soilik lotzen dugu, baina sexualitatea haurtzarotik zahartzaroa arte bizitzen da. Etapa bakoitzak bere kezka eta ikuspuntuak ditu:

Haurrek “norekin egon nahi dudana”, “zer gustatzen zaidan” galdetzen hasten dira; gazteek, ligatze kontuekin edo lehen musuekin; eta helduek, bikote-harremanak, banaketak edo desira mantentzea bezalako gaiekin.

Nire ustez, gizakiok behar unibertsal bat dugu: norbaitentzat garrantzitsuak izatea. Ez sexu-harremanagatik, baizik eta maitasun hori sentitzeko behar-rarengatik. Izan ere, sexualitatea ez da genitalekin egiten dugun hartara mugatzen, gai zabalagoa da: gorputza, emozioak eta harremanak barne hartzen ditu.

Familietan oraindik tabu handia al dago?

Bai, sexualki analfabetoak gara. Belau-naldiz belaualdi, ia ez dugu sexualita-



Bakedano liburu batekin azalpenak ematen.

teari buruzko transmisiorik egiten.

Emakumeak mendeetan erditu dira, baina oraindik hilekoaren inguruan isiltasun handia dago. Pixkanaka apurtzen ari da, baina oraindik ere lehenengo eiakulazioari buruz ez dugu hitz egiten. Horregatik, oinarritzko gaiak ez dira naturalizatu.

Eskolan, gainera, sexu-hezkuntza askotan ugalketara edo genitaletera mugatzen da, edo gehienez antisorgailuetara. Horri buruz hitz egin behar da, baina ez da nahikoa. Sexualitatea askoz ere zabalagoa da: plazera, desira, autoestimua, gorputz-irudia, emozioak...

Azken urteetan, 10-12 urteko haurrek adinaren aurkako ukenduak eskatzen dituzte, edo gero eta gazteagoak gimnasia joaten dira gorputz atletikoaren bila. Edertasun-kanon horrek presio handia sortzen du. Lan handia dago egiteko.

Eta etorkizunean...

Ikasturte honetan, Nafarroako Hezkuntza Departamentuak eta Osasunbideak elkarlanean, sexu-hezkuntzako pilotaje bat abiaraziko dute. Horren bidez, sexologoek beharrezko formakuntzak emanen ditugu ikastetxeetan.

Orain arte sexu-hezkuntza udalen, gizarte-zerbitzuen edo guraso-elkarteen esku zegoen; interesatuen eskuetan, alegia. Orain, helburu nagusia oinarritzko ikasgaia bihurtzea da. Horrez gain, Udako Euskal Unibertsitatearekin elkarlanean ikastaroak ematen ditut, eta kontsultan lanean jarraitzen dut. Egia esan, azken urteetan dena Iruñean zentralizatu da, eta nik landa eremura eraman nahi dut. Landa eremuak ez du hirien dependentzia izan behar; zerbitzuak herri txikietara eraman behar dira. Ni ere landa eremukoa naiz eta herri horrelako eremuak zaintzea ezinbestekoa dela pentsatzen dut.

Amaitzeko, norbaitek informazio gehiago nahiko balu edo elkarlanean aritzeko nire web orrialdera jo dezake, **www.itsasobakedano.eus** da. Nirekin harremanetan jar daiteke ere **@itsasobakedano** Instagram bidez, **623 270 981** telefono zenbakira deituz, edo **Sanduzelaiko Kresala** kontsultara joanez.

'Metodo A.E.' taldea, 24 segundoko aldearekin Txapeldun



Metodo A.E. taldea sariarekin.

Bigarren urtez, Lekunberriko festei hasiera emateko kuadrillen desafio bizia egin zuten. Bost taldek hartu zuten parte. Urriaren 8an jokatu zuten desafioa, eta lehenengo postuan Metodo A.E. kuadrillak berenganatu zuen, 12:14'72" errekorrekin. Bigarren postuan La Hole 12:38'85", hirugarrenean Los Mataus 12:39'77", laugarren postuan Patapiñak 13:36'85" eta amaitzeko, Sastraka 14:52'82". Lehiaketa Lekunberriko Udaletxe parean egin zen eta herriko kuadrillak sei proba ezberdinetan lehiatu ziren: txingak, zaku lasterketa, lasto jaurtiketa, korrika, lokotxak eta ingude proba. Partaide bakoitzak 9 kideko talde mistoa osatu zuten, eta garaileek Lekunberriko edozein tabernan afari goxo bat lortu zuten.

Nafarroako Aizkora Txapelketako lehen mailako kanporaketan jokatu zuten Lekunberrin

Nafarroako lehen mailako aizkolari txapelketaren kanporaketa jokatu zuten urriaren 11n Lekunberrin, herriko festetan. Iker Vicente otsagabiarra izan zen azkarrena. Harekin batera, Ibai Soroa eta Txomin Amundarain arribetarrak, Oier Kañamares, eta Julen Kañamares ariko dira azaroaren 14an Doneztebeko finalean.



Aizkolariak lehiatzen.



Joanes Bakaikoak Lau eta Erdiko final-laurdenetako ligaxkako lehen puntua irabazi du Javier Zabalaren aurka Lekunberrin. Argazkia: Patxi Cascante.

Joanes Bakaikoa garaile izan zen Lekunberriko Jaian Jai pilotalekuan

Pilarika egunean gauzatutako pilota partiduan, Bakaikoa 1-9 eta 17-21 galtzen ari zela, 22-21 irabaztea lortu zuen Javier Zabalaren aurka. Etxarri-Aranazko pilotariak erresistentzia itzalezina erakutsi zuen. Halaber, Zabalak partidaren zati handi bat menderatu zuen bere abiadura eta zehaztasunarekin, baina azkenean Bakaikoaren grinaren aurrean amildu zen.

Orreaga-Zubiri XVIII. maratoi erdia irabazi du Raul Amatriain Arraiza uitziarrak

Orreaga eta Zubiri elkartzen dituen Trail maratoi erdiaren hemezortzigarren edizioan nagusitu da Goiztiarrak taldeko Raúl Amatriain Arraiza korrikalari uitziarra. Urriaren 5ean, aurtengo marka guztiak xehatu eta mila dortsalak salduak zituzten antolatzaileek. Horien denen artean, 21,3 kilometroko lasterraldia egiten bizkorrena izan zen Amatriain, ordubete, 19 minutu eta 53 segundoko denborarekin. Uitziarren atzetik, bigarren izan zen Andrew McLeod (1.20.33) eta Atarratze Rota hirugarren (1:21:02).

Emakumeen artean, Nerea Murua gailendu zen (1.28.00), Angela Iglesias bigarren izan zen (1.31.34) eta Ana Pérez de Ciriza hirugarren (1.36.07).



Raúl Amatriain Orreaga-Zubiriko garaile 2025.
Argazkia: Goiztiarrak.

González eta Zulet, disdiratsu Espainiako Kopan

Iñaki González eta Lorea Zulet jokalaria sarituak izan ziren Disc Golf Bartzelonako *Palau-Solità i Plegamans* udalerrian jokaturako txapelketaren XIII. edizioan.

Parc del Fum-eko ibilbide zorrotzean, Lekunberri Kirol Taldeko Rafa Sarrieguik eta Lorea Zulet-ek parte hartu zuten. Biak ere podiumean izan ziren Espainiako Koparen sari banaketan: Zulet (FPO) txapeldun eta González (MP50) azpitxapeldun. Txapelketan, Gonzálezek hirugarren amaitu zuen eta Zuletek bosgarren postua lortu zuen sei hileko haurdun egonda.



Bartzelonako txapelketaren ondoren, Nafarroako lau ordezkariak.
Argazkia: Lekunberri K.E.

Ez, baina bai.

Imajinatzen duzue baliabide amaigabeak dituen mundua, dena denentzat modu berdin eta agorrezin batean banatzen dena, ezintasun edo eskasien arazoak deuseztatu eta bizitzeaz bakarrik larritu. utopia liluragarria ezta?

Ba ametsa zapuztera natorkizu. Unibertso hori existitu zelako, behin baino gehiagotan gainera. Eta amaiera lazgarriekin beti.

Unibertso horrek izena eta guzti dauka. Unibertso 25, 60-70. hamarkadetan eman zen Estatu Batuetako buru osasunaren institutu nazionalan, Maryland. Saguekin egin zuten ikerketa lana izan zen.

Esperimentu honetan, saguen janaria, ur eta aterpeak amaiezina ziren. Arrisku eta etsai guztiak kanpoan utzi ziren. Bizimodu erraza zen, komunitatea hazten eta elkarlanean ari zen. Baina denbora pasa ahala, populazioa dentsitate kritikoetara iritsi ziren, eta biztanleriaren pilaketa arazoak hasi. Emeek euren zaintza uzten zuten, indarkeria eta apatia nagusituz, arrek lurraldea defendatzen zuten modu obsesiboan. Horrela ugaltzeko gaitasuna galtzen joan zen pixkanaka, gizarte osoaren galbidera arte.

Esperimentu honek, gizarte espazioaren eta gehiegizko populazioaren garrantzia erakutsi zituen, gure ongizatea ez da janariaren edo aterpearen menpe, baizik eta gure elkarreraginen eta gure harremanen konplexutasun eta sakontasunaren menpe.

Gure mundu modernoan, mundu digitala, antzeko fenomeno gertatzen da. Amaigabeko iturri emankorra da. Jendea elkartzen du, baina aldi berean, isolatuta, gaitzargatuta eta estresatuta bizi gara, lehian, iruzkin txiki batez, kolapsatzen diren komunitateak. Askatasuna eta espazio fisiko eta mentala dira benetako baliabideak; horiek gabe, paradisu bat ere desagertu liteke.

Gizakiok kode genetikoaren %85a elkarbanatzen dugu saguekin, zientzian gure isla biologiko bezala ezagutzen da saga eta garapen etapak eta erakusten dituzten portaera konplexuak, gizakien neurologia eta psikologia ikertzeko aukerak emate dituzte.

Ez diot berdina gertatuko zaigunik. Ez, baina, agian.



Hitzaspertuan



●● Agurtzane Altuna

26

Ekonomika

Gaur eungo trasteak kaduzidade datakin sortzen dittue. Ez da matematika baño, alde alde, kotxeak 15 bat urte irauten due; piladun trasteak bost bat urte; bateridunek pixkoat gehio baño hortxe-hortxe; mobilek pare bat urte; ta etxetresnak 10-15 urte. Labadora hondatu dela eta teknikoan aurreneko galdera zenbat urte ditton. Hamarretik gora baditto, ez omen do komontzea meezi. Izan ee, komontzeko eskuk zikindu behar ez deenak dee gaur eungo traste gehinak, ta hondatzen bada bota ta fuera. Hoixe gaur eungo moda: ibilli ta bota. Hoixe da etengabe elikatzen duun kontsumo eredue; kantidadea kalidadea baño nahio den eredue.

Garai batean, berriz, betiko asmotan sortzen zittuela trasteak esango nuke. Sokaldetako ekonomiak, konparazio batea. 1820. urte alde hasi omen zeen aurreneko ekonomiak jartz-en sokaldetan. Izena jarri zionak ez zun denbo asko hartu izen egokigo bat asmatzeko. Lurreko su iikik baño hobeki aprobatxatzen zun suen beroa ta energie, ekonomikogoa zen, hortaz, ekonomika. Betikoa ta betiekoka.

Asmo hortan jarriko zuen garai batean Amonan etxekoa re. Zenbat ipurdi beotu ote ditto ekonomika xarraan aurreko barrak hola okertzeko. Zenbat eltze-ipurdi beotu ote ditto daune-ko zartatue daon txapak. Zenbat porru patata, zenbat gozatutako kafe, zenbat txipotxak itteko ur irakiñazi ote do; zenbat axuri labea; zenbat baarron-gorin salda lodittu ezain-ezain. Zenbat beroaldi ta zenbat beotu aldi. Zenbat eur puske gorde ote ditto ate ttiki horrek. Zenbat hortza traatu txapaan erdiko zulo ttikiek: "to zaharra ta ekatzak berrie". Zenbat aldiz altxako zun gantxoak hiruarren borobille; zenbat kontu kizkali eta zenbat haserrealdi goxatu.

98 urte bete berrik ditto gure Amonak. Zeharka beitzen dio sokaldeko ekonomika berde pinttarrai. Penatuta dao. Bea ezkondu zenean han omen zeon ekonomika hue ta oain errelebo eskean da nonbattee. Kontuk atea noizkoa den.

Nola baten nola bestean zikloa azkenetaa allaatzen ai da. Nola batek nola besteak hutsune galanta utziko due noizpatte sokaldean. Bata ordezkatu ditteke, bestea ez. Halai, ez giñuke penatu behar zikloa bukatuko delako, been beroa ezautu eta sentittu izanagatik poztu behar giñuke. Beti betikoai, gorazarre bero bat!

KLIKQ

Prestakuntza erraza,
doakoa eta zure neurrira

Ezaguru ikastaro guztiak hemen:

kliko.navarra.es



Teknologia zure erritmoan



Sar zaitez **kliko.navarra.es** webgunean edo deitu **012** telefonora eta jaso ezazu digitalizazio-ikastaroei buruzko orientazio pertsonalizatua, bai herritarrentzat, bai kolektibo eta erakundeentzat.



Financiado por la Unión Europea
Europako Batasunak Finantzatua
NextGenerationEU



Plan de Recuperación,
Transformación
y Resiliencia

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



“Irratian lan egiteak jendearekiko ardura handia dakar”

Jon Urtasun Usoz arrotxapearra, hezitzailea, musikaria eta Aralar Irratiko esatari berria da. Urriaren 1ean hasi zen Mailope Aldizkaria eta Aralar Irratiaren proiektu komunikatibo berrian lan egiten. Irratiko makineriarekin ohitzeaz gain, Martin Juanenaren esperientziatziaz ere ikasten ari da; izan ere, 2026 urteko maiatzetik aurrera Urtasunek Juanenaren lekukoa hartuko du, eta Aralar Irratia bakarka kudeatzen hasiko da. Momentuz, Martin Juanenarekin elkarlanean arituko da. Beraz, Urtasun egunero konektatuko da goizeko 12:15ean, irratsaioaren atal berria aurkezteko. Horretaz gain, irratiaren ikus-entzunezkoak, sare sozialak eta web orrialdeko albisteak ere kudeatuko ditu.



Jon Urtasun Usoz.

Iruñekoa zara, ezta? Zer ikasi zenuen?

Bai, Iruñekoa naiz eta irakaskuntza ikasi nuen. Beraz, ogibidez irakaslea naiz, baina Irati Irratian esatari lanean aritzeko aukera izan nuen. Bizitako esperientzia hartan irrati batean lan egiteko gai nintzela konturatu nintzen.

Beraz, Aralar Irratiaren lan-eskaintza ikusi nuenean ez nuen zalantzarik izan eta nire curriculumak bidaltzea erabaki nuen.

Komunikaziorako jakin-min berezia duzu?

Bai, ikasketen noranzkoa finkatzeko garaian, kazetaritza edo irakaskuntza hautatzeko zalantza izan nuen.

Azkenean, irakaskuntza hautatzea erabaki nuen. Gauzatu dudana ibilidearekin pozik sentitzen naiz. Egun komunikazioaren munduan amaitu dut, eta agian, kazetaritza ikasi izan banu, beste nonbait egongo nintzateke.

Irratian Martin Juanenaren maila mantentzeko erronka izango duzu...

Martinen maila mantentzeko gai izatea espero dut eta nire ahotsa entzuleei gustatzea baita ere. Egutegia ahalegintzen naiz ahotsaren erabilera eta ahoskera ongi lantzen. Bizitzan zehar nire ideiak gero eta hobeago adierazten ikasi dut eta lan egiteko gogoz nago. Halaber, nire helburu nagusietako bat entzuleak pozik sentitzea da.



BERTAKO HARAGIA
Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak.
Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7
31890 BETELU

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com



German Lasarte HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157



SAN MIGUEL gasolindegia
Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu



urrutia enea
etxeko hestekiak
LEKUNBERRI



Martin eta Jon Aralar Irratian.

Zein izango da proiektu komunikatiboaren norabidea?

Mailope Aldizkaria eta Aralar Irratia eraldatze prozesuan hasi dira. Herritarrei begira eta profesionaltasun-irizpideak ardatz hartuta, bide berri bati ekin diogu, aldizkaria eta irrata elkarlanean garatuz. Tokiko komunikabide sendo, dinamiko eta sakonago bat eskaini nahi dugu, kalitatezko informazioa lantzeko eta komunitatearen parte-hartzea sustatzeko.

Tokikom komunikazio-kooperatibaren laguntzarekin, eta Araitx, Betelu, Larraun eta Lekunberriko udalen babesarekin, komunikazio-eredu berri bat

“Martinen maila mantentzeko gai izatea espero dut”

“Egunero ahalegintzen naiz ahotsaren erabilera eta ahoskera ongi lantzen”



Streetwise taldearen kontzertu bateko une bat. Jon Urtasun bateria jotzen.

“Nire helburu nagusietako bat entzuleak pozik sentitzea da”

“Ilusio handiarekin sartu naiz proiektu komunikatibo berri honetan”

sortuko dugu Lekunberri, Larraun, Betelu eta Araitzen. Halaber, proiektu komunikatibo berri honekin aldizkaria eta irrata osagarriak izatea lortu nahi dugu. Irratian lantzen diren gaiak mailope.eus webgunean eta sare sozialetan (Instagram: @aralar.irratia, Facebook: Aralar Irratia) osatu eta elikatuko ditugu. Aldi berean, aldizkarian lantzen diren erreportajeak, artikulatuak eta elkarrizketak irratan partekatuko ditugu, betiere edukien oreka eta zentzua mantenduz.

Zure iritziz irratan inprobisatzeak arriskuak sortu ditzake?

Bai, noski. Baina Martinen inprobisazio gaitasun horretatik ikastea espero

dut. Hala ere, nik ere irratia funtzionamendurako ideia eta iritzi berriak ditut, eta gustura partekatuko ditut Martinekin zein entzuleekin. Egia da inprobisatzen jakitea garrantzitsua dela, baina antolakuntza bat mantentzea ere beharrezkoa da.

Musikaria ere bazara...

Bai, Streetwise eta Apotheke 90 taldeetako bateria-jotzailea naiz. Azkenaldian bateria elektronikoa ere jotzen hasi naiz, eta horrela nabil, beti ikasten. Musika mundua ongi ezagutzen dut, eta entzuleei ahalik eta musika anitzena eta kantu ederrenak eskaintzen saiatuko naiz.

Ilusioz beterik zaudela dirudi...

Bai, ilusio handiz nago. Nire esku da goena egingo dut egungo entzuleria mantentzeko, indartzeko eta entzule berriak erakartzeko.

Gainera, sare sozialen bidez gazteengana iristeko asmoa dut, irrata belaualdi berrietara hurbiltzeko.

Gustatuko litzaizuke jendeak zu ezagutzea?

Bai, noski. Kalean ikustean edo dei baten bidez ezagutzen banaute benetan pozgarria izango litzateke. Egia esan, irratan lan egiteak jendearekiko ardura handia dakar, baina hartu-eman hori biziki gustatzen zait.

Lehen aipatu bezala, ilusio handiarekin sartu naiz proiektu komunikatibo berri honetan. Aralar Irratiak orain arte egin-dako bideari jarraipen on bat ematea espero dut, eta nire ideia berriak partekatzeko gogoz nago.

TALLERES GOÑI
TAILERRAK

TALLERES GOÑI
CHAPA Y PINTURA

- IBILGAILU GUZTIEN TXAPA KONPONKETA ETA MARGOKETA
- BANKADAKO LANAK
- ERROTULAZIOAK
- LLANTA BERRITZEAK
- JASO ETA ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA
- KRISTAL ALDAKETAK
- BARRUKO ETA KANPOKO GARBIKETA
- ADEITASUN AUTOA DOAN

680 859 938 · 948 500 166 · CHAPIGO@GMAIL.COM



SUDOKUA

Bete hutsuneak UNTXIA hitza osatzen duten hizkiekin (U, N, T, X, I eta A). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

Zure ustez, zer ziztatuko du buruorratz honek? Zure amonaren ipurditxo, beharbada? Marraztu bururatu zaizun hori lauki barruan.



Zizta!

Kontsultatu soluzioak: www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

PUBLIZITATEA MAIOPEN

Mailope aldizkaria - 660 476 041
info@mailope.eus



serigrafia
diseinua
estanzazioa

kaixo@gko.eus 608 228 234



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



BACALAO ELKANO S.L.

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

AGENDA

AZAROA

4- 17:00 Donibane Zinema – Gizarte Etxea. Lekunberri.

7-8-9-11- Aldazko Festak.

7-8-9-11- Gaintzako Festak.

14- 19:00 Gora Gora Fest: "Ez dakizu nola tratatu" bakarriketa. Baraibar.

15- 17:00 Euskaraz bai! Apaingarrien tailerra. Uitzu.
18:00 Landa-eremua eta emakumeen zine-zikloa: Ziaraize dokumentala eta solasaldia. Gabari Gune Irekia.


21-28- "Xerka" erakusketa eta azaroaren 21ean hitzaldia 18:30ean. Gabari Gune Irekia.

22- 19:00 Ttutturre Kirol Elkartearen urteko asanblada. Gaiak: junta berria izendatu, 2025eko kontuak eta 2026ko egutegia osatu. Gabari Gune Irekian.


25- Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna:
· 19:00 Manifestazioa Lekunberriko Udaletxetik Larraungo udaletxera.
· 18:00 Bertso saio literarioa, Miren Amurizaren 'Pleibak' liburuan oinarrituta.
· Gai-jartzailea, Miren Amuriza.
· Bertsolariak: Nerea Ibarzabal eta Uxue Alberdi.
· Musikaria: Miren Narbaiza 'Mice'.
· Antolatzailea: Araitx eta Beteluko Berdintasun Mahaia Arribeko elizan.

30- Ttutturreren mendi irteera, Bortziriako Itzulia: Lizarrieta – Ibantelli – Lizuniaga – Larhun – Ibardin.

*Festen egitaraua kontrazalean.



HEMENGOA, ZURETZAKO










Kontsumitu eta saldu Km0
Nafarroako elikagaiak, Nafarroan

www.localtokikoa.es








948 013 040
circuitoscortos@intiasa.es

NAVARRA ‡ NAFARROA

Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua

FESTAK 2025

GAINTZA

Azaroak 7, Ostirala

19:00 Poteo Herrikoia
21:00 Martintxoren jaitsiera
Ondoren, Herri Afaria Sonbelu elkartean
00:30 DJ Andoni
02:30-03:30 Ordu XARMangarria
07:00 Gaupaseroen argazkia

Azaroak 8, Larunbata

17:00 Pituxa Clowntu Kontari, **ondoren**, haurrentzako merienda
18:00 Patata tortilla lehiaketa
19:00 Araxes Herri Kirol Desafioa eta Harrijasotzaileak
21:00 Bokata
(erreserbatzeko 646 91 58 81, epea: azaroak 6, osteguna)
-Patata tortilla
-Haragi-bolak
-San Martin
(txistorra+hirugiarra+gazta)
Ondoren, Bingo musikatua
22:00 Mus Txapelketa
00:00 DJ Zzeiko

Azaroak 9, Igandea

12:30 Meza nagusia
Ondoren, hamaiketako eta bertsolariak:
Bixente Gorostidi
Unai Muñoa
18:00 Talo jatea

Azaroak 11, Asteartea San Martin eguna

08:00 Suziriak
12:00 Meza nagusia
Jarraian, hamaiketako
14:00 Herri bazkaria

ALDATZ

Azaroak 7, ostirala

12:00 Suziria eta ezkila jotzea
12:30 Patata tortilla txapelketa sagardotegian
14:30 Bazkaria
17:00 Mus Txapelketa sagardotegian
21:30 Afaria eta saltxipapa lehiaketa
00:00 DJ Aldatz gaupasa

Azaroak 8, larunbata

11:30 Erronda etxex-etxe eta txaranga Iraunkorrak
20:00etatik aurrera Food Truck
Perurena
00:00 Los Tritus eta DJ Brii

Azaroak 9, igandea

10:00 Diana txistulariekin
12:00 Larraun-Lekunberri pilota partiduak
13:30 Bermuta karpan

Azaroak 11, asteartea

12:00 San Martin eguneko meza nagusia
12:30 Toka Txapelketa
13:00 Bermuta
15:00 Herri bazkaria